

ALTXORRAREN BILA

Bazen behin neska bat Ainara izenekoa. Egun batean, lagunekin jolasten ari zen Iruriteko plazan. Etxera itzultzen ari zenean, bere etxeko atean gizon bat ikusi zuen botil bat uzten ari zela. Gizona joan ondoren, korrika joan zen zer zen ikustera. Botila ireki zuen eta karta eta mapa baten puska zen. Kartan jartzen zuen:

“Altxor bat altxatuta dago eta
harrapatu behar duzu.
Zu hortxe bizi zara,
zeruraino joan behar da”.

Pentsatzen aritu zen eta jakin zuen, bere etxeko teilatuan zegoen. Bere etxeko sabaitik teilatura igo zen. Oso beldurtuta zegoen, eroriko zela pentsatzen zuelako. Igo zenean, mantso-mantso ibiltzen ari zen ez erortzeko. Teilatu guztian begiratu zuen, baino ez zuen harrapatzen. Bat-batean, kaxa bat ikusi zuen; joan zen eta, beste mapa zati bat zen eta beste pista bat zegoen. Pistan jartzen zuen:

“Berdea eta marroia da,
zure etxeko altuena da”.

Denbora luze bat pentsatu zuen eta jakin zuen, bere etxeko zuhaitz altuena zela, baina beste egun batean eginen zuen, iluna zelako. Hurrengo egunean, Ainara goiz jeiki zen, gosalduta eta bere aitari galdetu zion non zegoen etxeko zuhaitzik altuena. Eta etxearen atzean zegoela erantzun zuen. Ainara zuhaitzera joan zen; oso altua zen, vaina pentsatzen zuen igoko zuela. Igo egin zuen baino ez zuen harrapatzen. Ordu bat bilatzen aritu zen. Azkenean, triste harrapatzen ez zuelako, zuhaitzetik jaitsi zen. Bat-batean, soinu bat entzun zuen zuhaitzaren atzean. Begiratu

zuen eta, zulo bat eta barruan urtxintxa bat zen. Urtxintxa atera zen eta barruan, kaxa zegoen. Pistan jartzen zuen:

“Marroia da,
zure etxean dago,
landareak egoten dira,
“X” baten azpian dago”.

Denbora luzez pentsatu zuen. Hainbat gauza pentsatu zuen, baina zerbait falta zen. Azkenean jakin zuen; bere etxeko baratzean! Baratzean joan zen, ailtzurrarekin. Lehenik “X” bat bilatu zuen lurretik, harriekin egina egonen zela pentsatzen zuelako, baina ez zuen harrapatzen. Triste, baratzetik atera zen. Gero baratzean begiratu zuen, eta bat-batean bi arto-landare gurutzatuta zeuden eta “X” bat egiten zuen. Korrika joan zen eta zulatzen aritu zen. Denbora luzez zulatzen aritu zen baina harrapatu zuen. Kaxan beste mapa puska bat eta beste pista bat zegoen. Pistan jartzen zuen:

“Azkeneko pista da
otoitz egiteko joaten da,
kaliza egoten da”.

Segidan jakin zuen, Elizako kaliza egoten den lekua. Hurrengo egunen, goizez elizara joan zen, inor ez zegoen eta kaliza zegoen lekura joan zen. Karta eta maparen puska bat zen. Mapa osatuta zegoen. Kartan jartzen zuen:

“Mapa puskak lotu
eta mapa segitu”.

Mapa puskak lotu zituen eta mapan jartzen zuena segitu zuen. Argintzuko kaskoan dagoen gerra denborako bunkerran zegoen. Bunkerran sartu zen eta altxorra zegoen. Oso kontent jarri zen.

Gero berriz Iruritarra joan zen eta altxorra herriarekin banatu zuen eta parte bat museoan jarri zuten.

UXOA IPARREA RECARTE

1. kategoria: euskara prosa: 2. saria "ALtxorraren bila"